

Eltzaurdia ala Xantelerreka

IÑIGO, Andres

Presidente de la Comisión de Onomástica de

Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca

1. Bi izen horiei buruzko lekukotasunak

1.1. Eltzaurdia

Dokumentazio idatzian:

Elçaurrea, casa (1646, NAN. EST.); *Elzaurdia* (1795, Esparza); *Elzaurdia, barrio de* (1851, NAN. HIP.); *Elzaurdia, barrio de* (1860, NAN. HIP.); *Elzaurdia, barrio de* (1861, NAN. HIP.); *Elzaurdia* (1894, NAN. HIP.); *Eltzaurdia* (1944, Esparza); *Eltzaurdia* (1964, Caro Baroja); *Elzaurdia*, caserío de (1963, Esparza); *Elzaurdia* (1963, Esparza); *Elzaurdia* (1981, SGE.); *Elzaurdia* (Xantelerreka) «Barrio o caserío de Bera, que tenía 90 habitantes en 1887; 100 en 1900; 74 en 1910; 82 en 1920; 73 en 1930; 83 en 1940; 144 en 1950, población de derecho 71; 74 en 1960; 76 en 1970 y 70 en 1981» (GEN, IV, 273 or.). *Eltzaurdia* (1997, NTM.).

Ahozko bilketan:

Eltzaurdia (1989, OBIE); *Eltzaurdia auzua* (2010, Berako informatzai-leak: Juana Irazoki, 94 urtekoa; Arantxa Lazcanotegui, 46 urtekoa); *Barrio Eltzaurdia* (2010, Berako informatzailea: Saturnina Etxebeste, 83 urtekoa).

1.2. **Xantelerreka:**

Dokumentazio idatzian:

Xantelerreka (1944, Esparza); *Chantela, regata* (1959, Esparza); *Chantel erreca* (1959, Esparza).

Ahozko bilketan:

Xantel, Xantelerreka (1988, Berako informatzaileak: Fermina Errandonea, 74 urtekoa; Antonio Lazcanotegui, 68 urtekoa); *Txantela, Xantel, Xantelerreka* (1989, OBIE).

2. **Izen ofiziala: Xantelerreka/Elzaurdia, 1989 urteaz geroztik**

2.1. Euskaltzaindiak, 1988an bildutako ahozko lekukotasunetan oinarrituta, *Xantelerreka* hobetsi zuen (Ikus *Nafarroako Herri Izendegia*, 60., 228. eta 253. or.).

2.2. Nafarroako Gobernuak 16/1989, urtarrilaren 19ko, Foru Dekretuaren bidez onartu zituen Nafarroako eremu euskalduneko herri eta auzoen izen ofizialak. *Xantelerreka* eman zuen Berako auzo honen euskal izentzat eta *Elzaurdia* (sic, erdal modura ahoskatua) gorde zuen erdarazkotzat. Ondoren, erabaki horri zehar marraren (/) erabilera aplikatu zitzaion (NA. TOP. 85 or.), hots, leku batek bi izen dituenean, bat euskarazkoa eta bertzea erdarazkoa, bereizteko erabiltzen dena, hala nola, *Auritz / Burguete, Doneztebe / Santesteban, Orreaga / Roncesvalles, Urdazubi / Urdax...* Eta horrela, *Xantelerreka / Elzaurdia* gisa, ageri da orduz geroztik egindako argitalpen ofizial guztietan. Erran beharrik ez dago zehar marraren erabilera ez dagokiola kasu honi, hain zuzen ere, lekuaren bi izenak euskarazkoak direlako.

3. **Proposamen berria: Eltzaurdia**

Aurkitutako lekukotasun idatzien arabera, garbi ikusten da *Eltzaurdia* izena XVII. mendeaz geroztik dokumentatzen dela; *Xantelerreka*, berriz, XX. mendera arte ez da ageri eta, ematen duenez, errekararen erreferentzia da.

Ahozko testigantzei dagokienez, bi formak bildu badira ere, egungo lekukotasunen arabera, auzoa izendatzeko sendoagoa dirudi *Eltzaurdia* izena.

Horretaz gainera, oso kontuan izatekoa da, *Eltzaurdia* bertako aspaldiko baserria dela, dirudienez, auzoari izena eman ziona. Gaur egun ere, *Eltzaurdiko borda*, *Eltzaurdiko gibela* eta *Eltzaurdiko landaxpia* (ikus NTM. 83 or.) bizirik dirauten Berako toponimia txikiko izen ofizialak dira.

Hortaz, lekukotasunak kontuan izanik, **Eltzaurdia** izenak du lehentasuna auzoa izendatzeko, *Xantelerrekak* ez duelako horretarako *Eltzaurdiak* adinako tradiziorik, bai ordea erreferentzia egiten dion erreka izendatzeko.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak 2011ko martxoaren 16an Altsasun izandako bileran onartua, Berako Udalak 2011ko otsailaren 14an eskatutakori erantzuteko.

Bibliografia, iturriak eta akronimoak

CARO BAROJA, J., 1964, *La vida rural en Vera de Bidasoa*, Madril.

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA, 1990, *Gran Enciclopedia Navarra* (GEN) IV, Iruñea.

ESPARZA VIELA, Emilio Jose, «De toponimia navarra», *Príncipe de Viana* aldizkaria, 1964, 94-95 zkia., 67-126 or.; 1965, 98-99 zkia., 161-227 or., Iruñea.

EUSKALTZAINDIA / NAFARROAKO GOBERNUA, 1990, *Nafarroako Herri Izendegia* (NHI). Iruñea.

JIMENO JURÍO, Jose Maria (zuz.), 1997, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* (NTM), *IL*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA, Estatistika saila (NAN. EST.) eta Hipoteken atala (NAN. HIP.).

NAFARROAKO GOBERNUA, 2000, *Nafarroako Toponimia. Hizkuntz Normalizaziorako Irizpideak eta Herrien Izendegia* (NA. TOP.), (argit. Arduradunak Elorz, J. R. / Belasko, M.), Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea.

OBIE, 1989, *Bera Lurraldeko mapa*.

SERVICIO GEOGRÁFICO DEL EJÉRCITO (SGE).